

NOLA ERABILI

3. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

ADBERBIOA

10:56

ADIZLAGUNA _____ AUTONOMOAK

DENBORA ADBERBIOAK

LEKU ADBERBIOAK

MODU ADBERBIOAK

GALDETZAILEETATIK SORTUAK

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

ATAL DRAMATIKO TXIKIAK

Gidoiak irakurri letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

Gidoien argudioaren laburpena egin. Hau da, gidoien argudioak modu laburrean idatziz eman, eurretan gertatutakoaren zergatiak argi agertuz.

PERRETXIKO BILA

19:07

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Istorioaren laburpena idatzi bost lerrotan.

-Idatzitako laburpena gelakideei irakurri ozenki.

Hori guztia egin eta gero, bideoa ikusiko dugu.

ADBERBIOA

Izena nolakoa den esateko adjektiboak erabiltzen ditugu; Aditzaren ekintza noiz, nola edo non gertatzen den esateko, ordea, adberbioa. Adberbioek, nagusiki, hiru ezaugarri dituzte.

Adberbioek aditza lagundu eta osatu egiten dute. Adberbioak aldagaitzak dira, hau da, ezin dute determinatzailearik hartu. Adberbioek ez dute aditzarekiko komunztadurarik gordetzen.

Adberbioen artean batzuek atzizkiak behar dituzte aditzari lotzeko. Adizlagunak dira.

ADIZLAGUNA

Adizlagun batzuk deklinabideko kasu-markez baliatzen dira.

Antzerkira noa Momo ikustera.
Kaletik nator, ez dut inor ikusi.

Beste adizlagun batzuk posposizioez baliatzen dira

Azken aldian, ikasteko gogorik **gabe** nabil.
Nerearen **ustez**, dena da oso erraza.

- MIKEL.- Zuri **buruz** egon gara hitz egiten, Nerea.
NEREA.- Niri **buruz**? Zer dela eta?
MIKEL.- Mahai **gaineko** oharra dela eta.
NEREA.- Zer dio bada ohar horrek?
MIKEL.- Bihar etxetik **kanpo** bazkalduko duzula.
NEREA.- Eta?
MIKEL.- Ezer ez, zeuk ikusi.

Gainerako adberbioek ez dute kasu-marken beharrik aditzari lotzeko. Horrek ez du esan nahi ez dutenik atzizkirik hartzen, ez.

OIHANE.- Gaurtik aurrera hobeto portatuko naiz. **Bihartik** aurrera etxeko lanak egingo ditut.

MIKEL.- Aiba! Ongi entzun al dut? **Oraindaino** ez duzu ezertxo ere egin eta! Dena dela inoiz ez da **beranduegi** bide zuzenera itzultzeko.

Gaur, bihar, orain, ezer eta berandu dira adberbioak, ez dute atzizkirik behar euren funtzioa betetzeko, autonomoak dira.

Hori bai atzizkia hartzen dutenean, beste era bateko adizlagun bihurtzen dira.

Gaur + tik= gaurtik (Adizlaguna)

Bihar + tik= Bihartik (Adizlaguna)

Adberbioak era askotara sailka daitezke. Niri galdetzailea kontuan hartzen duen sailkapena gustatzen zait. Sailkapen horren arabera lau adberbio multzo bereiziko ditugu: Noiz? galderari erantzuten diotenak, Non? Galderari erantzuten diotenak, Nola? galderari erantzuten diotenak eta Galdetzaileetatik sortzen diren adberbioak.

Denbora-adberbioak Noiz?

Noiz? galderari erantzuten dioten adberbioek, denbora adierazten dute. Denbora-adberbioak direla esan dezakegu.

OIHANE Zer Mikel? Noiz egingo duzu harrikoa?

MIKEL Harrikoa, nik? **Atzo** egin nuen eta; **etzi** arte ez dut egin behar.

OIHANE Zurea bai mutur gogorra! **Herenegun** egin zenuen, ez **atzo**. **Gaur** zure txanda da.

MIKEL Ostras! Egia! Baina, ezin dut, **lehenbizi** ikasi egin behar dut, **gero** Mainerri deitu, **ondoren** ...

Atzo, etzi, herenegun, gaur, lehenbizi, gero eta ondoren adberbioak dira, denbora adierazten dute eta, *Noiz?* galderari erantzuten diote.

Leku-adberbioak Non?

Non? galderari erantzuten diotenen adberbioek, lekua adierazten dute, leku-adberbioak dira.

OIHANE Non dago Nerea?
MIKEL Nerea **hemen** dago.

OIHANE Kaixo Mikel, non dago Nerea?
MIKEL Nerea? Nerea **hor** dago, bankuan.

OIHANE Kaixo Mikel, non dago Nerea?
MIKEL Nerea **han** dago, bankuan. Ikusten duzu?
OIHANE Bai, bai. Ikusten dut. Hara noa. Gero arte, Mikel.
MIKEL Gero arte

Hemen, hor eta han leku-adberbioak dira. *Non* galderari erantzuten diote.

OIHANE.- Bostak. **Hemen** egon beharko luke. Non sartu ote da, Mikel? Nerearen etxea ez dago, ba, hain **urruti**. **Handik hona** berrehun metro baino ez daude. Bere liburuak **hementxe bertan** utzi ditu. Gainera, **hemendik bertatik** joatekoak gara.

Ate hotsa entzuten da. Mikel sartzen da.

OIHANE Arraioa, Mikel. Bostak dira. Non demontre egon zara orain arte?

Hemen, urruti, handik hona, bertara, hemendik bertatik adberbioak dira, lekua adierazten dute eta, *Non?* nahiz *Non?* galdetzailearen kideak diren *Nondik?* *Nora?* *Noraino?* *Norantz?* *Nongo?* Eta *Norako?* galderei erantzuten diete.

Modu-adberbioak Nola?

Nola? galderari erantzuten dioten adberbioek modua adierazten dute. Modu-adberbioak dira. Eurak dira ugarietak. Batzuk bakunak dira eta beste batzuk eratorriak, hau da, beste hitz bati atzizkia erantsiz sortuak.

Adjektiboa + -ki/-to Aditza edo izena + -ka
Aditza edo adjektiboa + -ik

- OIHANE Ondo eta ongi biak onartuak daude. Txarto ordea bizkaiera dela dio hiztegiak. Gaizki erabili behar da, txarki ez da agertzen eta.
- MIKEL Ea, utzi niri hiztegia. Hara! Begira, ederto eta ederki biak onartzen ditu.
- OIHANE Apurka-apurka bada ere ikasiko dugu.
- MIKEL Bai pausoka joan behar da, alferrik da presaka ibiltzea. Geldik egonda ez da ezer egiten, baina saltoka, gutxiago.
- OIHANE Zaude isilik Mikel, a zer jarioa zurea.

Ondo, ongi, txarto, ederto, ederki, apurka-apurka, pausoka, alferrik, presaka, geldik, saltoka, isilik adberbioak dira, modua adierazten dute eta, *Nola?* Galderari erantzuten diote.

Galdetzaileetatik sortutako adberbioak

Hainbat adberbio galdetzaileetatik sortzen dira

NOR + BAIT = NORBAIT

I + NOLA = INOLA

EDO + NOLA = EDONOLA

NON + BAIT = NONBAIT

I + NON = INON

NOLA + NAHI = NOLANAHI

NORA + NAHI = NORANAHI

EDO + NOIZ = EDONOIZ

EDO + NORA = EDONORA

NOIZ + NAHI = NOIZ NAHI

NON EDO NON

NOIZ EDO NOIZ

NORA EDO NORA

EZER GUTXI/INOR GUTXI

ZER EDO ZER/NOR EDO NON

MIKEL

Aizu, Oihane zer edo zer egin behar dugu. Norbaiti esan behar diogu.

OIHANE

Ez, ez diogu inori esan behar. Gure artean konpondu behar dugu.

MIKEL

Baina, Oihane, zu izan al zara inoiz Parisen?

OIHANE

Ez, egia esan ez naiz inoiz izan Parisen. Noiz edo noiz joango naiz baina...

MIKEL

Denbora galtzen ari gara. Noiznahi etor daiteke Nerea eta biotako norbaitek berarekin hitz egin beharko du.

Zer edo zer, norbaiti, inori, inoiz, noiz edo noiz, noiznahi, norbaitek adberbioak dira, galdetzaileetatik sortutako adberbioak.

PERRETXIKO BILA

- NEREA -OFF-** Hemen Nerea, Oihaneri deika, txanda.
- OIHANE** Hemen Oihane, entzuten dizut Nerea. Txanda.
- NEREA -OFF-** Zer moduz, Nerea? Ba al dago perretxikorik **hor**? Txanda.
- OIHANE** Arrastorik ere ez, Nerea. **Hemen** ez dago perretxikorik. Txanda
- NEREA -OFF-** Lasai, neska. **Hemen** ere perretxiko gutxi dago. Ai zu, Oihane, nolakoa da horko belarra? Txanda.
- OIHANE** Hemengo belarra? Hemen ez dago belarrik. Hemen dena orbela da. Txanda.
- NEREA** Orbela? Pagadian zaude, beraz. Txanda.
- OIHANE -OFF-** Bai, pagadian nago. Txanda.
- NEREA** Ongi da. Jarraitu **horrela**. Txanda eta Kito.
- Hemen Nerea, Mikeli deika, erantzun, txanda.
- MIKEL -OFF-** Hemen Mikel, zer berri Nerea? Txanda.
- NEREA** Zaharrak berri, Mikel. Hemen ez dago perretxiko askorik. Zer moduz, **hor**? Txanda.
- MIKEL -OFF-** Hemen ez dago bat ere ez. Hitz egin al duzu Oihanerekin? Txanda.
- NEREA** Bai, hitz egin dut Oihanerekin. **Han** ere perretxiko gutxi. Txanda.
- MIKEL -OFF-** Hau arrakasta, gurea! Gaur, bazkaltzeko, arrautzak eta ogia. Txanda.
- NEREA** Bai, bai. Beno, beste batean izango da. Txanda.
- MIKEL** Beste batean? Beste batean? Ez dakit, ez dakit. Txanda.

**NEREA -OFF-
MIKEL**

Bai, mutil, bai. Beste batean. Ez etsi.

Ez etsi? Lau ordu bueltaka, gora eta behera, lurrera begira... Oinak erreta dauzkat. Banoa bulegora. Txanda.

NEREA -OFF-

Arrazoi duzu, Mikel. Ni ere aspertuta nago. Ni ere bulegora noa. Oihaneri esango diot. **Hortik** bulegoa urruti al dago? Txanda.

MIKEL

Hemendik hara, gutxi gorabehera, hogei minutu beharko ditut. Hamar minutu, oinez, autoraino eta beste hamar, autoz, bulegoraino. Txanda.

NEREA -OFF-

Beno, ez da hainbeste. Lasai hartu. Bulegoan ikusiko dugu elkar. Gero arte. Txanda eta kito.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatika Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,
Josemari:
Gramatika Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com